

EUSKAL AEko HIRU HILEROKO KONTU EKONOMIKOAK (HKE) 2011ko 1. HIRUHILEKOA

Euskal AEko BPGk urte arteko %0,9ko hazkundera izan zuen 2011ko lehenengo hiruhilekoan


Aurreko hiruhilekoaren aldean hazkundera, %0,3

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko BPG %0,9 hazi da 2011ko lehen hiruhilekoan, 2010eko aldi berarekin alderatuz gero. Tasa hamarren bat hazi da, aurreko hiruhileko hazkundearekiko.

Espainiako ekonomiarako datua %0,8 izan da; 27-Europar Batasunerako eta Euro-16 zonalderako, %2,5, eta %2,3 Estatu Batuetarako.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuz gero, Euskal AEko BPG %0,3 hazi zen, hamarren bat gehiago. Hiruhilekoen arteko aldakuntza hau Espainiakoaren antzekoa izan da, hamarren bat txikiagoa AEBtako (%0,4) baino eta bost hamarren txikiagoa 27-EBkoa eta Euro-16koa (%0,8) baino.

1. grafikoa. BPG m/p. Urte arteko hazkunde-tasak. (%)



Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak. INE eta Eurostat

Eskaintzaren ikuspegitik, hiruhileko honetako urte arteko hazkundera industriak jokaera hobea izan duelako gertatu da. Zerbitzuetan positiboa izan da bilakaera, zertxobait gutxiago aurreko hiruhilekoan baino, eta merkatu-zerbitzuetan hobeto ez-merkatukoetan baino. Eraikuntzan oraindik ere negatiboa izan zen jarduera, baino aurreko hiruhilekoan baino apalkiago.

1. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2009	2010	2010				2011
			I	II	III	IV	I
Nekazaritza eta arrantza	3,6	-2,8	-26,6	-4,2	18,3	8,2	-14,1
Industria	-12,7	0,4	-2,3	0,9	1,6	1,6	3,0
Eraikuntza	-3,6	-5,9	-5,4	-5,5	-6,6	-6,2	-4,4
Zerbitzuak	-0,2	0,8	0,5	0,9	0,7	1,1	1,0
Produktuen gaineko zerga garbiak	-2,0	2,1	-0,1	2,2	3,6	2,7	0,0
BPGda merkatuko preziotan	-3,8	0,3	-0,8	0,5	0,6	0,8	0,9

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Lehen sektoreak jaitsierak izan ditu bai urte artean (%-14,1), bai aurreko hiruhilekoaren aldean (%-26,5).

Industrian, hiru hiruhilekoetan hazi –gutxi- ondoren, urte arteko %3,0 dugu, %0,9 hiruhileko artean.

Urte artekoa puntu bat eta lau hamarren handiagoa da aurreko hiruhilekoaren aldean eta lau hamarren handiagoa hiruhilekoen arteko tasan. 2009an jaitsiera handiak izan ziren industrian, bai urte artean, bai hiruhileko artean; 2010ean hazkunde txikiak; 2011ko lehen hiruhilekoan industriak ditu hazkunde-tasarik handienak.

2. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2010				2011
	I	II	III	IV	I
Nekazaritza eta arrantza	-7,5	20,5	5,2	-7,7	-26,5
Industria	-0,4	0,9	0,6	0,5	0,9
Eraikuntza	-4,8	-0,2	-1,3	0,1	-2,9
Zerbitzuak	0,1	0,3	0,0	0,6	0,1
Produktuen gaineko zerga garbiak	0,2	2,1	0,1	0,3	-2,5
BPGda merkatuko preziotan	0,2	0,3	0,0	0,2	0,3

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Eraikuntzak berriz izan du urte arteko tasa negatiboa (%-4,4); aurreko hiruhilekoan baino puntu bat eta zortzi hamarren hobe. Jaitsiera bai etxegintzan, bai obra zibilean gertatu da. Hiruhilekoen artean berriz ere tasa negatiboak, bi puntu eta bederatzi hamarren.

Zerbitzuen sektoreko bilakaera globala apur bat mantsotu da urte eta hiruhileko arteko hazkunde-tasetan, positiboa bada ere. Urte artekoan %1,0 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago, eta hiruhileko arteko terminoetan bilakaera positiboa izan zuen, %0,1; aurreko hiruhilekoan sei hamarren hazia zen.

2011ko lehen hiruhilekoan **Merkatuko zerbitzuak** %1,0 hazi dira urte artean; %0,9 izan zen aurreko hiruhilekoan. Hiruhileko arteko hazkundera, %0,2, 2010eko laugarrenean (%0,7) baino gutxiago.

Administrazio Publikoarekin lotutako **Ez-merkatuko zerbitzuak** apaltasun bidean sartu dira: %0,9 hazi dira urte artean, puntu bat eta hamarren bat gutxiago aurreko hiruhilekoaren aldean. Hiruhileko artean %1,4ko jaitsiera dugu, aurreko hiruhilekoan bilakaera positiboa izan zelarik.

Sektore-agregatuaren bilakaerak **Balio Erantsiaren** urte arteko %0,9ko hazkundera ekarri du; hiru hamarren hobeto 2010eko laugarren hiruhilekoan baino. Hiruhilekoen artean 2010eko laugarreneko %0,2tik 2011ko lehenengoko %0,5era pasatu da.

Aurreko hiruhilekoan bezalaxe, **Eskariaren aldetiko** gertaera nabarmenena kanpo-sektorearen jokaera ona izan da. Barne-eskaria %0,3 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren hobeto.

3. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2009	2010	2010				2011
			I	II	III	IV	I
Etzeguneen azken kontosumoko gastua	-3,7	0,8	-0,6	1,4	1,2	1,2	0,8
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	3,7	1,3	0,5	1,8	2,1	1,0	1,3
Kapital-eraketa gordina	-15,4	-6,0	-9,8	-6,8	-4,0	-3,2	-1,8
Barne-eskaria	-5,7	-0,7	-2,6	-0,5	0,1	0,1	0,3
Guztizko esportazioak	-18,4	8,3	1,1	10,9	9,0	12,6	13,7
Guztizko inportazioak	-20,1	5,8	-2,6	8,2	7,2	11,0	12,0
BPGda merkatuko preziotan	-3,8	0,3	-0,8	0,5	0,6	0,8	0,9

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Familia-etxeen azken kontsumoaren gastua (Kontsumo pribatua) %0,8 hazi zen urte artean. Aurreko hiruhilekoko baino lau hamarren gutxiago. Hiruhilekoen artean ere gauzatzen da moteltzea: %0,2 hazi da, eta %0,5 hazi zen 2010eko laugarren hiruhilekoan.

Kontsumo Publikoak (Herri administrazioen azken kontsumoko gastua) neurritsu jokatu du berriz ere. 2011ko lehen hiruhilekoan urte arteko tasa, %1,3, aurreko hiruhilekoan baino zertxobait hobe; hiruhilekoen artean 2010eko laugarreneko %-0,6tik 2011ko aurreneko %-1,5era.

Kapital Eraketa Gordinak (Inbertsioak) tasa negatiboak ditu berriz ere: %1,8ko jaitsiera urte artean, aurreko hiruhilekoan baino puntu bat eta lau hamarren gutxiago. Hiruhilekoen artean hazkunderik ez aurrekoaren aldean.

Kontsumo publikoaren eta pribatuaren eboluzioak, Kapitalaren eraketa gordinak eta horien pisu erlatiboek zehazten dute **Barne Eskariaren** jarrera. Hazkunde-tasa positiboa du (%0,3) urte artean, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gehiago. Hiruhileko arteko hazkundera (%0,6) bost hamarrenez egin du hobera aurreko hiruhilekoaren aldean.

4. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2010				2011
	I	II	III	IV	I
Etzeguneen azken kontosumoko gastua	0,6	1,1	-0,9	0,5	0,2
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	-1,8	1,2	2,2	-0,6	-1,5
Kapital-eraketa gordina	-1,4	-1,6	-0,9	0,8	0,0
Barne-eskaria	0,4	0,2	-0,6	0,1	0,6
Guztizko esportazioak	6,1	5,7	-0,4	0,8	7,1
Guztizko inportazioak	7,6	4,0	-1,1	0,3	8,5
BPGda merkatuko preziotan	0,2	0,3	0,0	0,2	0,3

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Kanpo sektorean, aurreko hiruhilekoan bezalaxe, ekarpen positiboa egiten zaio BPGri. Urte artean esportazioak (%13,7) gehiago hazi dira inportazioak (%12,0) baino; beraz, kanpo-saldoak hobera egin du, eta honek BPGren bilakaera hobera ekarri du Barne Eskariaren aldean.

Lanpostuetan, hamarren bateko jaitsiera dugu urte artean eta lau hamarren hiruhileko artean. Negatiboa bada ere, hiruhileko honetako urte arteko tasa 2010eko laugarren hiruhilekokoa baino lau hamarren hobera da. Termino absolutuetan, tasa hauekin 800 bat enplegu galdu dira aurreko urteko aldi beraren aldean.

Nekazaritzak, industriak eta eraikuntzak enplegua galdu dute urte arteko tasan eta hiruhileko artekoan; zerbitzuen sektoreak joera hobera izan du urte artean.

BPGren bilakaeran, Araba ibili da hoberen urte arteko tasetan, %1,3 hazi da; Bizkaian %1,0 eta Gipuzkoan %0,7. Hiruhileko artean, Arabak %0,2, Bizkaiak %0,4, Gipuzkoak %0,3.

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Javier Aramburu

Tel.: +34-945-01 75 80 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen gaineko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen gaineko datu-bankua](#)